



“mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak”

Ahozko literaturaren altxorra jendearen belarrietara heltzea da ikuskizun honen asmoa. Kantatzeko ez ezzik, historia kontatzeko ere balio dute bertsoek.

Asmo honekin, XX. mendeko giro politiko eta soziala (gerrateak, gosetea, emigrazioa, frankismoa,...) deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte Xabier Amuriza eta Jon Maiak ekitaldi honetarako.

Xabier Amurizaren hitzetan:

"Mendea luzea, zabala, adartsua da. Euskal Herrira mugaturik, hogeigarrenak bide eta bidagurutze amaigabeak utzi ditu gure oroimenean. Bertsoaren esparru erlatiboki txikian ere, urte osoa beharko genuke bertsolaritzak jaulki duen emaitza guztia berritzen. Inoiz oihu, sarritan auhen, hemen aldarriak bakarrik jaso ditugu, eurok ere hautatze nahitaez estuan bereziak eta, hori bai, Euskal Herri osoa ordezkatzeko dutenak. Nola kantatu du bertsolaritzak gure hogeigarren mendeko ibilera politikoa? Aldarrien eragile maizkorrenak oinazea eta nahigabea badira ere, goza ezazue bertsolaritzak askotan saminez, batzuetan amorruez eta beti ere dotore kantatu digun mendearen radiografia entzunez."

Hautatutako bertsoak honokoenak dira:

Anonimoak, Agirre, Alkain, Arrese-Beitia, Azpillaga, Basarri, Elizanburu, Enbeita Kepa, Etxahun Iruriko, Etxeita, Lazkao Txiki, Lopategi, Markano, Otaño, Otxalde, Iturzaeta, Txirrita, Uztapide, Xalbador, Yanzi.

Bertsolari eta narratzaileak: Xabier Amuriza eta Jon Maia

Iraupena: ordu eta erdi

Kontratazioak eskaintzen duena:

- Kartelak
- Agendatara informazioa bidaltzea

Beharrak: 2 mikro

-----Kontratazioa-----



www.lanku.com

lanku@lanku.com – marketina@lanku.com

tfn: 943 260 755 – 675 716 472